



## ESAITek uste du «euskal selekzioa lor daitekeela»

**AGERRALDIA** ▶ «Mugaz gaindiko federazio nazionalak lortzea zilegi» dela jakinarazi zuen atzo Alegian

**ATXIKIMENDUA** ▶ Tolosaldeko kirol elkarte gehienena jaso du eta oraindik bada horretarako aukera ▶ 7



ESAITeko kideak eta eskualdeko kirol elkarteetakoak, atzo. I.GARCIA



IÑIGO TERRADILLOS

## Aurtengo 'Titirijai'-ri eman diote hasiera

**TOLOSA** ▶ Atzo hasi zen Txotxongilo Jaialdiaren 23. edizioa Txinako eta Venezuelako partaideekin; abenduaren 4ra bitarte izango da ▶ 6

### IBARRA ▶

## Lau egunetarako jardunaldiak antolatu ditu Udalak Kultur Trukea izenburupean; etzi hasiko dira

Abenduaren 2a arte iraungo dute; tartean izango da Revelo, Karakus, Buchwald eta Gonzalez artisten erakusketa ▶ 4-5



## LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- |                           |                         |                          |
|---------------------------|-------------------------|--------------------------|
| - Ehorzketak              | - Hilerrien proiektuak  | - Panteoiak              |
| - Lurpetik atera          | - Hilerrien eraldaketa  | - Hilobiak               |
| - Gerakinen lekualdatzeta | - Eraikuntza ezberdinak | - Estelak                |
| - Gerakinen errausketa    | - Hilobi apaingintza    | - Fotozeramikak          |
| - Errausketa zerbitzua    | - Hilarriak             | - Estanpaziozko teknikak |

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa  
Tel./Faxa: 943 67 01 14  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

## ARGAZKI ZAHARRA ▶

Txinpartakoak  
1931. urtean

**Erredakzioa** ▶ Asteazkenean aurkeztu zuen Txinparta elkarteak bere 75 urteak laburbiltzen dituen *Elkarbizitzarako eskola* liburua, Ander Letamendiak idatzia. Liburu horretatik jaso dugu honako irudia. 1931ko abenduaren 25ean ateratako argazkia da. Ezker-eskuin eta goitik behera, hauexek bazkideak: V. Urquiola, E. Ortiz de Zarate, J. M. Garayalde, J. Moco-roa, S. Altuna, J. Zubillaga, L. Sarasola, C. Muñagorri (ez sortzailea), I. Alberdi, J. Carrera, P. Echeverria, E. Tapia, J. J. Beloqui (ez sortzailea), D. Moco-roa, E. Garayalde, J. M. Mugica, J. Insausti, I. Amonarriz, D. Altuna, L. Peña (ez sortzailea), B. Alcor-ta, J. Larramendi, P. Elosegui, V. Loinaz, E. Amantegui, J. A. Oreja, M. Ugarte, R. Iturrioz, P. Al-corta, R. Arriaran. P. Moco-roa, M. Urretavizcaya eta P. Vitoria sortzaileak falta dira. \*TXINPARTA.

ELKARBIZITZARAKO ESKOLA\* LIBURUA

## UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

## Mundua aldrebes



**M**undua zabalean lege dena, ez da gure herrian betetzen.

Gauza jakina da gazteak erakusten duela sasoia eta indarra; adin jakin batean izaten dugula ahalegin fisikorako

gaitasunik handiena, eta hortik aurrera, mantentzen nahikoa lan eta ezinbestean beheraka hasten gara. Egia da ere, urteen joanak indarrak ahultzen dituen neurrian, bizitzaren eskarmentuak eta esperientziak odola hozten duela eta halako tenple eta soseguz jazten duela edadeko pertsona, bideko otzopo eta arazoei aurre egiteko gazteak baino tre-beago bihurtuz.

Esan bezala, gure herrian lege hau ez da betetzen. Joan den igandean Beotibarren jokaturako Urrezko Aizkolari azkarraren lehiaketan, berrogeita hama-

sei urteko *aittona* irabazle, ia berrogei aizkolari gazteago eta sasoiko artean; egun gutxi lehenago, Nafarroako txapela eraman zuen. Atzerago joanda, Euskal Herriko Txapelketa mende erdia gertu duenak irabazi du. Gainerako kirolelan gertatzen ez den bezala, gazteen erresuman, zaharrak errege.

Juxtu kontrakoa gertatzen da indarraren partez, eskarmentua, artea, ofizioa eta tenplea lehiarako gai direnean; pertsona helduagoen bertuteak neurtzerakoan, alegia. Horren adibide, Bertso Txapelketa Nagusia. Hemen, berriz,

itxura batean beren dohainak erakusteko adin egokian daudenetako askok, ez dute euren burua gazte ausart eta lotsagabeekin neurtzeko gai ikusten. Eta berrogeita lau urteko Egaña dugu txapelketako zaharrena. Plazan sasoi ederra erakusten duen bertsolari *edadetu* bat baino gehiago falta da.

Aizkolarienari ez diot esplikaziorik aurkitzen, eta bertsoak jartzeko modukoa iruditzen zait. Falta diren bertsolarien kasuan, agian batzuek nahikoa dute langintza horretan irabazitako txapelarekin eta, nor daki, bakarren batek akaso aizkolari txapelketaren bat irabaziko du oraindik ere. Adin hobereanean daude.

hitza

# lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILEA PAINT NEGIA  
**honekin**

TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**

San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**

OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ESANAK ▶



IÑAKI ARRATIBEL  
KIROL MEDIKUA

«Euskaltelek ez badu beste inor aurkitzen, nire ezezkoa berraztertze prest nago»

«Nire anaiek eta lagunek konbentzitu egin ninduten Tolosa CFko lehendakari izateko»

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun zentroa: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun zentroa: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amarozko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autob.: 948 221015
  - ▶ Taxis: 670420
  - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

**EZBAIAN ▶ Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna izan zen ostiralekoa; denon konpromisoaren eta inplikazioaren beharra azpimarratu dute iritzi emaleek**

JONE HERNANDEZ (TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUNERAKO TEKNIKARIA) ▶

## Isiltasuna eta ikusezintasuna

Isiltasuna eta ikusezintasuna gauza arrunta dira emakumeontzat. Historiak hori erakutsi digu. XX. mendea agurtu genuenean behin baino gehiagotan entzun genuen 100 urte horietan gertatutako iraultza nagusienetarikoa bat emakumeek egindakoa izan zela, hori bai, isiltasunean eta ikusezintasunean egindako iraultza zela zioten. Emakumeek gure indarrikapenak aurrera eramateko erabili izan ditugun bitarteko eta estrategiak ez ditut orain aztertuko. Hala ere, nik isiltasuna eta ikusezintasun horien inguruan beste interpretazio bat daukat. Izan ere, nire ustez horien kontra egiteko gogoa izan da, hain zuzen ere, emakumeen egoeran aldaketa nabarmenak eragin dituenak.

Emakumeen hitzak eta iritziak adierazteko grinak eta arlo sozial guztietan parte hartzeko nahiak bultzatu dituzte historian zehar haien aldarrikapenak. Hezkuntza osoa izateko eskubidea, bozkatzeko eskubidea, beren gorputza gobernatzeko esku-

bidea... Eskaera hauen ildotik emakumeen ahotsak eta irudiak azaleratuz joan dira. Nabermentze prozesu honetan emakumeen aurkako indarkeria beste urrats bat izango litzateke. Egun, emakume asko eta asko jasaten ari diren egoera larri hau era bortitzez batean agertzen zaigu, urteetan gai honen inguruan izandako isiltasuna apurtuz. Hori bai, ezagutzen duguna ez da errealitate osoa. Eta isiltasunak eta ikusezintasunak kasu honetan alderdi bikoitza dute: indarkeria pairatzen duten emakume askok ez dute beren egoera salatzen, eta, galnara, haien arazoak, gehienetan, pribatua den espazio batean du kokalekua. Eta pribatasun hau izan da, hain zuzen ere, orain arte erabili izan den aitzakia nagusienetarikoa bat gaiari ez heltzeko. Nola sartu beskeen etxeetan? Nola esku hartu familiarren eremuan?

Baina feminismoak aspaldi erakutsi zigu pertsonala dena politikotzat (hau da, publikoa, denon interesekoa dena) ere jo

daitekeela, eta emakumeen aurkako indarkeria horren adibide nabarmena izango litzateke. Izan ere, argudio psikologikoak edo bestelakoak baztertu gabe, gero eta argiago agertzen zaigu arazo honen jatorria eta konponbidea gizartean dagoela emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ahalbidetzen dituen gizarte honetan. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko oso lan sakona egin behar da. Arazo zehatz honi amaiera emateko baliabide asko jarri behar dira martxan. Eta baliabideekin batera borondatea. Eta inplikazioa. Denona. Baina, bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak izan behar du jomuga. Hori lortu ezean ezin izango da aurrera jo, eta arazoa belaualdiz belaualdi mantenduko da; itxuraldatuta agian, beste bertsio edo formato batekin, baina beti indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria. Eta isiltasunaren eta ikusezintasunaren kontra borrokatzen jarraitu beharko dugu.

TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA ▶

## Indarkeria Sexistaren Kontrako Eguna

Ostiralean izan zen Indarkeria Sexistaren Kontrako Eguna. Emakumeok urte guztian jasandako erasoak izan genituen hizpide komunikabide guztietan, iritzi desberdinak eta hotzikara sortzeko moduko datuak. Aurten Euskal Herrian indarkeria sexistaren ondorioz bederatzitik emakume hilda, milaka eraso eta makina bat diskriminazio izan ditugu, parekidetasunaren bidean aurrerapausoak eginez baino atzeraka goazen sentipen garaz utziz gu guztiongan. Eta oraindik orain 'pasiozko' hilketei buruz hitz egiten aditzen dugu, 'etxeko' indarkeriaz mintzo dira, kasu hauek kasualitate hutsez edo 'ero' batzuen momentuko beroaldiaren ondorioz gertatu balira bezala.

Gazteen artean ematen den indarkeriaren gorakada ere ezin ahanntzi. Azkenaldian eraso sexistak, bortxaketa eta erailketa kopuru altua izan dira gazteen artean. Parekidetasunean bizi garenaren sinesmena ezarri digute gazteoi, baina argi dago ezkutu baloreek eta jarrerak matxistak izaten segitzen dutela, saldu diguten *berdintasunaren gizarte* hau iruzur hutsa dela, alegia.

Eraiketa, eraso, balore matxista hauek guztiek arrazoi bat dute, eta ez dugu haiekin amaituko arazoa sakonetik lantzen ez badugu. Indarkeria sexista egiturazkoa da, sistema patriarkalak elikatzen du, eta berekin bukatu nahi badugu, jendarte patriarkalaren aurka egin beharko dugu gogor, neurri partzialak ez baitute arazoa ezkutatzera besterik lortzen. Urratsez urrats, eragile desberdinekin elkarlanean, komunikabideei konpromisoak eskatuz, parekidetasunean oinarrituriko Euskal Herria sortzeko beharra ikusarazi nahi dugu. Norbanakook ere asko egin dezakegu eraldaketa hau posible izan dadin, jarrera antixenista aktiboa izatea bakoitzaren esku baitago.

Baina indarkeria sexista egiturazkoa dela diogunean ez gara erasotzaileari erantzukizuna kentzen ari; beharrezkoa deritzogu bere bazterketa soziala. Indarkeriaren arazoaren oinarria soziala denez, bazterketa ere jendartetik abiatu beharra daukagu, eta denon ardura da Tolosaldean, Euskal Herrian eta beste inon ere lekurik ez duela argi uztea erasotzaileari.

Instituzioei ere, nola ez, euren konpromisoa eskatu behar diegu. Jartzen dituzten neurri asko partzialak eta efektistak dira, eta ez dute arazoaren oinarria jotzen. Guk plan integralak behar ditugu, arazoa munitetik helduko dutenak. Gainera, martxan jartzen diren neurri gehienek emakumeen egunerokotasuna murrizten dute erasotzaileena beharrean, biktima zigortzen dute.

Oso adierazgarriak dira instituzioek gaur egun duten jarreraren inguruan udan zehar Euskal Herriko herri eta hiri ezberdinetan izandako bortxaketen inguruan lekuko agintari politikoei eginiko adierazpen lotsagarriak, emakumeen janzkera edo jarrerarekin bortxaketak justifikatzen iritsiz.

Guk, indarkeria sexistarekin amaitzeko, jendarte patriarkalarekin amaitu eta parekidetasunean oinarrituriko Euskal Herria sortzeko konpromisoa hartua daukagu. Bidea gogorra izan arren, ziur gaude lortuko dugula, eta horretarako zure laguntza ere ezinbestekoa dugu. Zahar, gazte, gizon, emazte, denok dugu irabazteko.

iragarki laburrak ▶

**Aireportuak.** Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz. 943 31 37 82.  
**Haur Eskola publikoak.** Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, asteleheneretik ostiralera. Informazioa

doan. 943 31 37 82.  
**Garbitzaileak.** Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Asteleheneretik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. 943 31 37 82.  
**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu.

Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Asteleheneretik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82.

**Harreragileak.** Harreragile-telefonista. Udaletxeetarako plaza libreak. Informa zaitetz 943 31 37 82.  
**Sukaldari laguntzaileak.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

IBARRA > GIZARTEA

# Trukearen aberastasuna

Etzi hasi eta abenduaren 2a arte, Kultur Trukea antolatu du Udalak; bertako eta kanpoko 4 artistaren eta Ibarro argazkien erakusketa, ipuin kontaketa eta Ekuador ezagutzeko emanaldia izango dira

### ERREDAKZIOA

Ibarroko Udalak antolatuta, Kultur Trukea abiaraziko dute etzi, abenduaren 2a bitarte. Eta, hain zuzen ere, hori izango da ekimenaren helburua: kultura desberdinen trukea egitea, ezan ere, pure herrian malkina bat artista dugu, eta be-

rriak egiten ditena gainerako herriarekin lotzea eta ezagutzera da bilatzen duguna, eta, bestetik, kultura desberdinek batzea ere oso aberasgarria dela uste dugu, esan du Oihelo Romeo Ibarroko alkateak. Hala, herriko artista guztiak bilatzea eta euren dohainen erakusketak egitea zaila denez, ho-

rietako batzuk aukeratu dituzte, datozen urteetan herriari gehiagok parte hartzeko aukera izango duen nahiarekin. Ingrid Buchwald eta Enrike Velazquez herriko 2 artistez gain, Ibarren bizi den Ekuadorreko Rosi Reveloren eta Tolosan bizi den Sükürü Karakus turkiararen obrak izango dira ibarraig

erakusketan. Bestalde, Ibarro herriaren inguruko argazkien erakusketa, Maite Franckoren ipuin kontaketa saioak, Helena Orcocoyen 19 urteko osporato ibarritararen emanaldiak, eta Ekuadorreko leku turistikoetako buruzko ikus-entzuzkoak osatuko dute Ibarroko Kultur Trukeko egitaraua.

### EGITARAUA >

**ETZI**  
**Pintura erakusketa.** Sükürü Karakus, Ingrid Buchwald, Rosy Revelo eta Enrike Velazquez artisten pintura erakusketa, Kultur Elean. Ordulega: 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

**ASTEAZKENA**  
**Pintura erakusketa.** Sükürü Karakus, Ingrid Buchwald, Rosy Revelo eta Enrike Velazquez artisten pintura erakusketa, Kultur Elean. Ordulega: 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

**OSTEGUNA**  
**Argazki erakusketa.** Ibarroko herriaren inguruko argazkien erakusketa, Kultur Elean. Ordulega: 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

**OSTIRALA**  
**Sidoie emanaldia.** Ekuadorreko toki turistikoetako buruzko bideoaren emanaldia, Maite Franckek antolatuta, Kultur Elean, 19:00etan.

ROSI REVELO > ARTISTA

## «Nire lan bukatuek hausnarketa bukaezinak iradokitzen dituzte»

Ibarren (Ekuador) jaio zen, Arte Plastikostan lizentziatua zen, Lehenengo ohorezko aipamena Paris sarian jaso zuen 1991ean. Quito Hiria Erakusketan lehenengo saria jaso zuen; 2001ean bigarren saria irabazi zuen Pintura SOS Aldeas Kinkendof Internazional Cane-ent; 2005an, Luxemburgo eta Paris-ko *Grands et jeunes d'aujourd'hui* erakusketan parte hartu zuen eta Mariano Aguilarran eta Cuencaco Icononillan *La libertad del artista* hautatu izan zen. Egun, Estetika, balioak eta kultura doktoregoa ari da egiten EHUan.

**Bigarren aldiz erakutsiko duzu zure lana Euskal herrian, Gostura?**  
Oso pozik nago. Hondarribian egin nuen lehena eta orain Ibarren. Gustoko dut hemen nire lana erakustea, asko gustatzen baitzaizkiz Euskal Herria. **Zer ikusteko sukera izango dugu?**  
Mehise gaiten eginikoak dira, akrilikoa, teknika mixtoarekin. Mugarri mugagabe bezala deskribitzen dut nire lana. Gizadiaren konplexutasun amagabeak eta denboran utzi dituzten aztarna mugatuak egioten dio erreferentzia. Nire lan bu-



katuek hausnarketa bukaezinak iradokitzen dituzte. Baina, hori bai, sufrimendurik edo tristeziarik gabekoa dira, pasioa, indarra eta alaitasuna leiztuen dute nire obrak. Bestalde, enkumusaren irudia ere present izaten dut beti; izan ere, arteak urrutin egon da emakumea, eta azken urteetan mezeritako lekutxo artigara egi- ten. **Herrialde desberdinetako artistak biltzeko zerehoi. Zer iruditzen?**  
Ondo iruditzen zait. Izan ere, Ekuador pobrezarekin edo in- migratzaiekin lotzeko joera dago, eta herrialde ekimene- kin asko dugula erakutsiko izusko du jendeak. Eta, game- ra, besteek egin dituzten ere ikasteko aukera izango da. Tra- dizio bizhurtu beharko lirateke etxetik haurak, artistotzat oso garrantzitsuak baitira. <

ENRIQUE VELAZQUEZ > ARTISTA

## «Etengabe jardutea da nire inspirazio iturria»



Villabonan bizi den Ibararra, 1962an jaio zen. Autodidaktaz- zat definitzen du bere burua. Banaskako 100 erakusketa eta 44 erakusketak eginak ditu. Hainbat lehena eta bigarren sari jaso ditu bere lanengatik, eta baita accessit eta epama- haiaren aipamen bereziak eta hautapenak ere. 1973tik 2004ra bitartean. **Nola hartu duzu Kultur Trukeko erakusketan parte hartzeko gonbia?**  
Oso gustura nago. Hala ere, ez da Ibarren nire lana erakusten dudana lehenbizikotik aldia; esaterako, Kultur Etxearen inaugurazioan ikusgai izan ziren nire obrak. **Zer eskainiko duzu? Zein da zure estiloa?**  
Teknika mixtoa, akrilikoa erabiltzen dut. Estilo abstraktoa, espresionista naietza diote, baina nik neure burua autodi- daktik bezala definitzen dut.

**Eta zertan oinarritzen zara zure obrak egitekoan?**  
Ehngabe lanean jardutea dela esango nuke nire inspirazio iturria. **Noiz ekin zenion pinturak egiteari?**  
Oso gaztetik hasi nintzen. Pentsa, 11 urterekin irabait nuen lehenengo saria. Eta ordutik ez naiz geratu. Azkenaldian asti gutxiago badut ere, pinturari ia egunero turtua egi- ten saiatzen naiz, eta hala jarraitu nahi dut. **Hainbat sari eta aipamen berezi jaso dituzu zure lanarekin. Honetaz bizitzea posible al da?**  
Oso zaila da pinturaz, arteaz bizitzea. Bizitzan behar oso gairak onak izan ditut, eta pinturaren- kin lan asko egin ahal izan dut, baina lan gutxiago egin dudana garaiki ere izan dira. Beraz, bi- labete batean bai, baina hurrengoan jango dugunik ez di- zu aurtuten. <

SÜKÜRÜ KARAKUS > ARTISTA

## «Txikitik, margotzen nuenean ni neu nintzela sentitzen nuen»

Malatyan (Turkia) jaio zen, 1966an. Hezkuntzako Pinturan eta Arte Ederretako Pinturan lizentziatua eta Graduatuko ondoko Arte Ederretako Pinturan. Pintura irakaste izan zen Nami- k Kemal Ibaizen eta 1994-1996 urteetan lan eremu batean jabe izan zen Arteleku (Do- nosia). 12 urte daramatza To- losan bizi, eta pintura aka- demia bat du bertan. **Zer eskainiko duzu?**  
Ikusgai izango denetakoa ba- tean, Mesopotamiako kultur- an erabiltzen zen hizkuntza irakur- ditako, eta Eufrates ibaiari ageri- da. Armenian jaio eta arabiar

issosara doana da, eta esanahi- berezia du niretzat, horren al- boan jaio bainintzen. Beti biz- rik dagoen ibaiak da, mugarririk ezagutzen ez duena. **Urte mordoak daramatzazu margotzen.**  
Oso txikia nintzela jakinmin handia sortzen zidan margo- tzetik, eta horretan egoten nint- zen beti. Uste dut hor dagoela gakoak, jakinmin horretan. Nire kantuan, ni neu sentitzen nint- zen margotzen nintzen. **Artista jalo behar al da, ala ikasi egiten da?**  
Ez dugu bereziki dohain bat, ez gara horrela jaotzen, egin,

sortu, bilakatu egiten gara. Gainera, ez da inspirazioa nikoz etorri zain egon behar; lanaren barruan dago-ekinaren ekinaz sortzen da. Artistak ikertzen ditardu uneoro, zientzialari- baten moduan. **Kulturantzasunak: askotan entuzten dugu hitza da.**  
Modan dagoen zerbitu da. Bai- na beneratu zer den eta zer garrantzia duen jain behar da. Aterritzeko eta bertakoek, ba- rik bestearen influentzia izan ohi dugu. Hain zuzen ere, ho- rretan datza trukearen aber- tasuna. Eta artean ere ho- rrela da. <



INGRID BUCHWALD EGIA > ARTISTA

## «Egunero egiten ditudan argazkietan ikusitako istorioez baliatzen naiz»

1980an jaio zen, Tolosan, baina Ibarren eman ditu urte gehien- tsuenak. Arte Ederretan lizen- tiatua zen Euskal Herriko Un- bertsiatzen, 2003an. Urte horretan bertan Madrilera joan zen, Arte eta Teknologia Be- rrietako masterra egitera. Bere argazki, pintura eta ikus-entz- uerako lanak Bilbon, Berlinen, Donostian, Madrilen eta Gas- teizen jarri ditu. Urte honetako maiztasun Gipuzkoako Artistak Berrien XLI. Lehaketako sari- bat jaso zuen bere P-1992-Y-301AN obrarekin. Cello Linaon- n pintura seriearen ekopiepena eta animazio digitaleko ikus- entzuzko piezak sortzen di- tardu. **Estreinak aldiz, herriarrian**



**surrean zure lana erakutsiko duzu, Gostura?**  
Oso gustura. Baituen gogoa nire ingurukoak nire lana en- gutzeko, eta azkenean irrisi da una. Donostian izan zen ikus- gai, baina askok ez zuten ikus- itako aukerarik izan eta orain- gero erakusketan ikusi ahal izango dute. **Zein lan aukeratu duzu Ibar- rako erakusketan jartzeko?**  
Orain urtebete egin nuen *Habi- tai* izeneko serieko margo bat jarriko dut ikusgai. Akrilikoa eginikoa da, teknika mixtoaz baliatuz. **Zein da obra horrek duen esan- tziak?**  
Serie osoa bost margok osatzen dute, eta bakoitzaren per- sonek bat azaltzen da. Erakus- ketan jarriko dudana marjoan, Zoo izeneko neska agertzen da. Neska honek bere burua hormaren kontra sentitzen du. Inguruan bizi duen buruko- zia- gatik eta gizartearekin di- tuzten arazoengatik sentitzen da horrela. Pertsona horiek ingu- runarenekin una jakin batean duten harremana iruditatu nahi izan nuen. **Nondik iriti zitzaizun horren guztizaren ideia?**  
Alemanian arte nituen argazki- batzuen ondorioz etorri zitzaiz- dan, hain zuzen, serie horren gain. **Beraz, lehenbiziko argazkiak alera eta ondoren horiek ikus- ita gausatzen dituzte zure lan- naka.**  
Bai, hala da. Egunero egiten di- tudan argazkiak dirala nire inspi- razio iturria esango nuke. Ar- gazkiak begiritzen ditut, ba- nan-banan eta aukeraketa egiten dut. Ondoren, istorioak topatzen ditut aukeratu ditu- dan argazkietan, eta istorio ho- rietatik sortzen dut nire hurrengo lana izango denaren gaia. <

**Tolosa Udalak**

PREZIOA	ANUNTIO
EMETERIO ARRIE: 30 € GARAJE ALKARRIA	ARRENTAMENTO DE 31 GARAJES EN ENTERRIO ARRIE: 2
PROKOSMANA AURKIDORNA: 2025eko abenduaren 13 arto (egun hau bertan)	DE 30 GARAJES EN LA ZONA DE SOCO
PREZIOA: 18 € (urte) + 100 € (urteko mantentzearen balantza)	PREZIO: 18000 € (urte) + 80 € (urteko mantentzearen balantza)
ANUNTIOA: 18000 € (urte) + 80 € (urteko mantentzearen balantza)	ANUNTIOA: 18000 € (urte) + 80 € (urteko mantentzearen balantza)

**hilberriak > urteurenak > eskertzak**

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HEITZA gutxiesten erazio hartuak

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Tel: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.info

**ESKERTZA >**

**JOSE IGNACIO RODRIGUEZ MONTOYA**

(Golan begi)

Azkenaren izan. Leuzotza hil zen Jose Ignazio Rodriguez Montoya jaunak, uneko aldia ez zuten eratu uneko aldia, jaiotzen, eta bera hilak erabiltzen eratu jaiotzen gaitu.

1966an



TOLOSA ▶ 23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

NOELIA LATABURU

Atzo hasi zen 23. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia Tolosan. Abenduaren 4ra bitarte titererei bizia ematen dieten taldeek hartuko dute herria eta magia ere ekarriko dute hona. Atzoko lehen bi saioak —Ibarran ere izan zen horietako bat ikusgai— Venezuelako Titeres La pareja —*Panchito Mandefua* lanarekin—, eta Txinako Guandong Puppet Theatre —*Lignango hagaxoen magia*— taldeei egokitu zitzaion. Ikusle asko gerturatu ziren emanaldiez gozatzeraz.

Txinakoak dira aurten bereziki protagonista. Guandongo Puppet Theatre taldea 1956ean sortu zen. Bere bizitzako 40 urteetan konpainiak 300 ekoizpen baino gehiagoko errepertorioa bildu du: mitoak, txotxongilo ikuskizun modernoak eta haurrentzako ikuskizunak. Bereietako batzuk sari garrantzitsuak lortu dituzte bai nazio bai nazioarte mailan. Bereiek aurkezten duten lana familiari zuzenduta dago. Hagaxozko txontxongiloen xarma, efektu bereziak eta trikimailuak deskubritzen uzten duten *sketch* multzo batez osatuta dago ikuskizuna, eta teknika horretako txinatar konpainia onenetako batek manipulatzeko txontxongiloak.

Bigarren txinatar konpainiaren txanda bihar helduko da, Hunan Puppet and Shadow Art Troupe. *Itzalen jokoa* aurkeztuko dute. Talde hau Nunango probintzian itzalaren eta txo-

# Txinako titereren magiari so hasi dute txotxongilo jaialdia

Venezuelako Titeres la pareja eta Txinako Guandong Puppet Theater taldeak aritu ziren atzo; gaurko, antezelan gehiago



Andaluziako (Espainia) Teatro Maravillasen emanaldia, gaur. HITZA



Titeres La pareja. HITZA

txongiloaren artearen oinarri experimental batean bilakatu da. 1956eko uztailan sortu zenetik, arte tradizional batekin jarraitzeko oinarri baten gainean, aldaketa eta berrikuntza ausartak egin ditu, eta horrek txotxongilo eta itzalen artearen zorroztasun artistiko berri ba-

tekin freskotasuna ekarri diete, ospe handia irabaziz. Beraien lana ere familiarentzat da, Leung Hung Yu zuzendariaren gidaritzapean; Han Zhizhong generalen eta bere emaztearen istorioa kontatzen du, Sung dinastiaren garaian heroi nazionalak Jin kanpotarren aurka

egiten zuena. Baina ez dira txinatarrak soilik taula gainean antzeppen lanetan. Bulgariako, Asturiaseko eta Andaluziako (Espainia) eta Argentinako titererek alaituko dituzte datozen bi egunak, haurrentzat bai eta helduentzat ere zuzendutako emanaldiekin.

## EGITARUA ▶

### GAUR

**Kultur Etxea.** Bulgariako Teatro Ariel-ek *Jostunxo ausarta* lana aurkeztuko du, 12:00etan eta 16:30ean.

**Kasinoa.** Asturiaseko (Espainia) Teatro Plus taldearen *Carabasko* antzerkia, 19:30ean.

**Gorosabel auditorioa.** Andaluziatik (Espainia) Teatro Maravillas, *Kaio baten historia* lanarekin, 18:00etan.

**Beotibar pilotalekua.** Txinako Guandong Puppet Theater, *Lignango hagaxoen magia* lanarekin, 17:30ean eta 20:00etan.

### BIHAR

**Kultur Etxea.** Txinako Hunan Shadow Art Troupe taldeko *Itzalen jokoa* lana, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.

**Kasinoa.** Asturiaseko (Espainia) Teatro Plus taldearen *Carabasko* antzerkia, 11:00etan eta 15:00etan. Gualdean, 20:30ean eta 22:30ean, Greziatik etorritako Baruti Al Filo de los Hilos taldea.

**Ekialdeko misterioa.** **Gorosabel auditorioa.** Argentinako Libertablas taldea, *David eta Goliat* lanarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.

**Beotibar pilotalekua.** Guandong Puppet Theater, *Lignango hagaxoen magia*, 11:00etan eta 15:00etan.

## BERASTEGI-IKAZTEGIETA ▶ KULTUR ASTEAK



## Azkenera heldu dira bi herrietan kultur asteak, ekitaldi andanarekin

**Erredakzioa** ▶ Tolosaldeko bi herri haien kultur asteetan murgildurik izan dira, eta pixkanaka euren amaierara heldu dira. Atzo Ikaztegietakoaaren txanda izan zen. Kirodegiko frontoian izan zen Irrintzi taldearen erromeriarekin eman zuten amaitutzat ekitaldiz beteriko astea —ezkerreko argazkian—. Berastegiarek atzo ere izan zuten ekitaldirik. Xalto pailazoarekin gustura aritu ziren haurrak zein helduak —eskuine-

ko argazkian—. Gaur izango dute Kultur Astearen azken eguna eta amaierarako gazta lehiaketa egingo dute eta herriko produktu eta eskulanak jarriko dituzte ikusgai pilotalekuan izango den azokan, 11:00etan. Eguerdi partean, 12:30ean, gazta, postu eta argazki rally-ko irabazleen sari banaketa egingo dute pilotalekuan. Arratsaldeaz, azkenik, gazten dastaketa egingo dute, 18:00etan. I. GARCIA

TOLOSA ▶

## Neguak bere aurpegia erakutsi zuen atzoko azokan

Botatako euriak mesede egin die barazkiei; kalitatezkoa izan zen aurkeztutakoa

PABLO ALBERDI

Hotza eta elurra izan ziren atzo nagusi Tolosako azokan. Goizaren hasieran erosle kopurua ez zen oso handia izan, baina, pixkanaka, eta eguna argitzen eta zertxobait berotzen zihoala, salmentek gora egin zuten.

Barazki zerrenda kalitatezkoa izan zen atzo. Joan diren egunetan botatako ura mesedegarria izan da barazki askorentzat, eta bai porruen, azenarioen edo azen, azaloren edota bruselazan itxurak hobera jo du.

Honenbesteko hotzak bere alde ezkorra ere izan zuen perretxikoengan. Onddo zerrenda murriztu egin zen atzo, eta dirudienez datozen asteetarako zeharo desagertuko da.

Berdura plazan pazko loreen zai gaude oraindik. Ziu-rrenez, hurrengo astean, beti eguraldiak laguntzen badu, aurkeztuko dira.

### ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Krisantemoa	4,00	12,00
Klabeledina	4,00	9,00
Salbia	1,00	1,20
Erromeroa	4,00	6,00

### Bertako produktuak

Porrúa	1,00	3,00
Azenarioa	1,20	3,00
Arraultzak	1,30	2,10
Azalorea	1,00	-
Tipula	0,80	1,00

### Produktu ekologikoak

Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Arraultzak	3,50	-
Aza	2,50	3,00

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Denboraldia puri-purian dagoen honetan, ehizaren aldekoa ala kontrakoa zaren adieraztera animatzen zaitugu web orrialdean.

KIROLA ▶



Eskualdeko kirol elkarteek egindako prentsaurrekoa, atzo, Alegiako kiroldegian. I. GARCIA

# Federazio nazionalak lortzea « posible » dela adierazi du ESAITek

Euskal selekzioaren eta federazio nazionalen aldeko atxikimendua eman dute Tolosaldeko kirol elkarte gehienek

IMANOL GARCIA

«Posible da mugaz gaindiko federazio nazionalak lortzea». Hori da atzo ESAITek zabaldu zuen mezua Alegiako kiroldegian egindako prentsaurrekoan. Tolosaldeko hainbat kirol elkarte ordezkariren babesa izan zuen ESAITek, eta egun burutzen ari den Zazpiak Bat kanpainaren berri eman zuen: «Kirol elkarten eta kirolarien babesa ari gara biltzen euskal selekzioa eta federazio nazionalak izateko. Dagoeneko Tolosaldeko kirol elkarten gehien goaren babesa lortu dugu».

Federazio nazionalak izatea posible dela arrazoitzeako, bi puntu zehazten ditu ESAITek: «Alde batetik, Europak aukera hori ematen du. Bestetik, mar-tan dira dagoeneko maila nazionalako federazioak, sortu berri den pilotarena, esatera-

ko. Beste alor batzuetan, bertsolaritzan, adibidez, Euskal Herri osoa hartzen da».

Helburu hori lortzeko ESAITek kirol eragile nagusien beharra du, hau da, kirolariena, kirol elkarteena eta kirol federazioena. Gizarteak ere bere babesa ematea beharrezkoa ikusten dute. Horregatik bultzatu dute Euskal Selektzioaren Aldeko Manifestua, kirolariak eta kirol elkarteak sinatzen ari direna.

«Euskal Herria bere osotasunean ordezkatuko duen selekzioa nahi dugu, eta, horretarako, Euskal Herriko Federazio Nazionalak behar ditugu», zehazten da manifestuan, besteak beste. «Euskal kirolariak garen ez, euskal nazioaren koloreekin eta gure ereserkiaren doinupean lehiatu nahi dugula aitortzen dugu», gaineratzen du. Sinadura bilketaren amaie-

ra modura, ekitaldi berezia egingo dute Bilboko Kafe Antzokian abenduaren 23an. Oraindik atxikimenduak biltzen jarraitzen dute ESAITeko kideek eta interesa duten Tolosaldeko kirol elkarte eta kirolariak bi modu dituzte horretarako: 635 72 72 02 edo 943 11 89 30 telefono zenbakietara deituta (abenduaren erdira arte) edo [www.esait.org](http://www.esait.org) web-orrialdean sartuta.

### ATXIKIMENDUAK ▶

Orain arte atxikimendua eman duten kirol elkarteak:

- Alegia.**
  - ▶ Intxur ehiza elkarte.
  - ▶ Intxurre K.K.E.: futbol taldea, pilota taldea eta mendi taldea.
  - ▶ Langaurre Txirrindulari Elkarte.
  - ▶ Alegiko Mendi Asanblada.
- Altzo.**
  - ▶ Elordi Elkarte.
- Amasa-Villabona.**
  - ▶ Uso Toki Elkarte.
  - ▶ Irintzi Txirrindulari Elkarte.
- Anoeta.**
  - ▶ Kuku Pilota Elkarte.
- Bidegoian.**
  - ▶ Saiaz Pilota Elkarte.
  - ▶ Muxarra Ehiza Elkarte.
- Elduain.**
  - ▶ Muga Ehiza Elkarte.
- Ibarra.**
  - ▶ Lauburu-Aker Elkarte.
  - ▶ Ibarra Zikloturista Elkarte.
  - ▶ Haitzetan Raku Mendi Taldea.
- Ikaztegieta.**
  - ▶ Herrigintza Elkarte.
- Irura.**
  - ▶ Ametsa Pilota Elkarte.
  - ▶ Gazte Alaia Elkarte.
- Tolosa.**
  - ▶ Tolosa CF: futbol taldea, Aralar Kirolak saskibaloitza taldea eta atletismo taldea.
  - ▶ Hegoalde areto futbol taldea.
  - ▶ Oriako Txirrindulari Elkarte.
  - ▶ Urrats Txirrindulari Elkarte.
  - ▶ Mendikute Mendi Bizikleta Elkarte.
  - ▶ Laskorain Elkarte.
  - ▶ Amaro Elkarte.
  - ▶ Beotibar Zesta-Punta Elkarte.
  - ▶ Aurrera Pilota Elkarte.
  - ▶ Oargi Mendi Elkarte.
  - ▶ Indarra Gim Wu-Shu Elkarte.
  - ▶ Judo Elkarte.

## TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAN

# salgai

**Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako:**

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak

hitza



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 27a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena

9

hotzena

8

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA ARALARREN



Guardex:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** EHNA tramitatzeko aukera udaltxean 11:00etatik 14:00etara. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria eraman.

**Alegia.** Hector Lunaren Amazoniako Tagaeri indioen inguruko erakusketa, Jubilatuen tabernan.

**Leitza.** Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak haurrentzako aisialdi tailerrak antolatu ditu Eguberrietarako. Begiraleak behar dira. Izen-ematea, bertan (948 51 08 14).

**Tolosa.** Tolosaldeko Triatlói taldearen bilera, etzi, 19:00etan, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak ludoteka antolatu du Eguberrietan, abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra, hain zuzen ere, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era. Izen-ematea, Galtzaundiren egoitzan.

**Tolosa.** Liburu eta diskoen 17 argitalexe daude Liburu Azokan San Frantzisko pasealekuan. Gaur azken eguna. Orduetgia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

**Villabona.** Euskal preso politikoen heriotzak salatuta eta Miguel Zalakaini omenaldia egingo diote Belabietan 12:00etan. Oinez joan nahi duenak 09:00etan du hitzordua kiroldegian. Autoz joan nahi dutenek, 11:30ean leku berean.

**ZINEMA**

**Leitza.** Kim Ki-duk-en *Hierro* 3 filma, 19:30ean, zinema aretoan.

**Villabona.** Montxo Armendarizen *Obaba* filma Gurea zinemaren. Gaur, 19:30ean gaztelaniaz eta 22:00etan euskaraz. Bihar, 19:30ean euskaraz eta 22:00etan gaztelaniaz.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

**Bihar**  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria 3. 943 67 09 15.  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Aldarri bat mila bider

**TOLOSALDEA ▶** Emakumeek jasaten duten indarkeria salatu asmoz hainbat ekitaldi antolatu zituzten herenegun arratsaldean eskualdean



Euriari aurre eginez, kontzentrazioa egin zuten Triangulo plazan Bilgune Feministak deituta. I. TERRADILLOS



David Azurza, Miren Garikano eta Iñigo Alberdi. I. T.



Txaro Arteaga, herenegun egindako ekitaldian. I. T.

**IÑIGO TERRADILLOS**

**A**ldarri berarekin, hau da, emakumeek jasaten duten indarkeria salatzen helburuz, ekitaldi ugari antolatu zituzten herenegun eskualdean. Izan ere, Emakumeengana Erasoan Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen zen.

Tolosako eskulturak oihal beltzekin estalirik eta oiholan dolu mezuekin esnatu zen herria. Arratsaldean, berriz, Txaro Arteaga emakumeen egungo egoeraz hitz egin zuen, Julia Otxoa idazleak olerkiak irakurri zituen, Amaia Agirre bertsolariak bertsoak kantatu, eta David Azurza, Miren Garikano eta Iñigo Alberdi musikariek musika emanaldia eskaini zuten Errotako hitzaldi aretoan egindako ekitaldian. Aurretik, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatetik aste baino gertuago jazozen direla genero indarkeriaren kasuak eta «maiz jasotzen ditugu emakumeen deiak launtza eske», azaldu zuen.

Bestalde, Bilgune Feministak antolatuta, eskualde mailako kontzentrazioa egin zuten iluntzean *Emakumeen kontrako indarkeriak ez! Erasotzaileei ekintza zuzena!* lelopean.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Maialen.** Gure poxpolinak bihar urtebete. Zorionak muxu handi batekin, familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Iker eta Julen Esnaola (Belauntza).** Gaur 2 urte eta abenduaren Sean 4 urte. Familiaren partetik muxu handi bana.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarteak

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaltxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!